

BIZITZA BERRERAIKITZEKO AHOTSAK



ELLACURIA
FUNDAZIOA
GIZARTE GUNEA
CENTRO SOCIAL

Honako hauen laguntzarekin:

 **alboan**
ONG JESUITA FUNDAZIOA

 **Bizkaia**

enplegu gaitasun eta enplegu-errot
berdintasun sozialaren saila
departamento de empleo
cohesión social e igualdad





Honako hauen laguntzarekin:



**BIZITZA
BERRERAIKITZEKO
AHOTSAK**

AURKIBIDEA

- Bizitza berreraikitzeako ahotsak
orr. 7
- **AZHAAR, SOMALIA:** Bakea da guztiaren oinarria.
orr. 10
- **OLENA, UKRANIA:** Ez ahaztu gure gerra.
orr. 13
- **AMAL, SIRIA:** Aurrera egiten lagun diezagutela.
orr. 18
- **SARAH, ARJELIA:** Gizarte honetatik espero dudan guztia aldaketa bat da.
orr. 23
- **AMIRA, SIRIA:** Seguru sentituko zaren herrialde batera joan ahal izatea.
orr. 29
- Epilogoia
orr. 35

BIZITZA BERRERAIKITZEKO AHOTSAK



BIZITZA BERRERAIKITZEKO AHOTSAK

Emakumeek gatazka armatuak edo gerrak bizi izan dituzte historian zehar, eta euren bizitzetan eta gorputzetan desberdintasunak eta indarkeria areagotu egin dira. Baina ez dira biktima pasiboak. Bizi izandako egoeren orbainak erresilientzia-, berreraikuntza- eta biziraupen-gaitasunen aztarnak eta frogak ere badira.

Ellacuria Fundaziotik Europa ekialdeko Latinoamerikako, Magrebeko eta Saharaz hegoaldeko Afrikako emakume migratuekin egon gara. Azken urteotan, laguntza-ariketa horrek emakumeek gerra-testuinguruetan bizi duten errealitatera hurbildu gaitu, derrigorrezko desplazamenduetara eta oinarritzko eskubideen urraketetara.

Emakume horiei eta haien familiei ematen diegun laguntza harre-
ra komunitarioko eredu bati lotuta dago. Eredu hori konfiantzazko harremanak garatzean oinarritzen da, Auzolana II, Loturak eta Red Mambré Sarea bezalako programetatik. Programa horietan, herri-
tarrek harreran parte hartzeak gizarte berriak eraikitzen laguntzen du.

Hala ere, ikusten dugu hizkuntza, familia eta/edo bizitza bateragari egiteko oztopoak daudela emakumeei aurrez aurre entzun ahal izateko deialdia egiten zaigun edo deitzen diegun beste gune batzuetan. Eta ezin baditugu entzun, gizarte gisa aukera bat galtzen ari gara bizi dugun mundua hobeto ulertze-
ko eta garen eta izan nahi dugun gizartea birpentsatzeko.



BIZITZA BERRERAIKITZEKO AHOTSAK

“Bizitza berreraikitzeako ahotsak” filmak Somaliako, Ukrainako, Siriako eta Aljeriako emakumeen historietara zuzenean hurbiltzeko bide bat eskaintzen digu. Izan ere, emakume horiek indar handiz adierazi dute entzunak izateko interesa eta, horrela, haien migrazio-proiektuan parte hartu ahal izatea.

“Bizitza berreraikitzeako ahotsak” filmak protagonisten istorioak biltzen ditu bi formatuetan. Idatzizko eta ikus-entzunezko kontakizunak dira, eta beren esperientziekin, gaitasunekin eta aldaketa-nahiekin interpelatzen gaituzte.

Bizitzaren eta itxaropenaren lekuko diren emakumeen esperientziak jasotzen dituzte. Egunerokotasunetik zauriak sendatzen dituzten bizitzaren ehuleak, beren burua berreraikitzen ahalegintzen dira, baita euren familia- eta komunitate-bizitza ere euskal gizartean. Entzunak izateak lagundu egiten die sendatzeko eta erreparatzeko prozesuei, bai eta sendatze pertsonal eta kolektiboari ere, eta, aldi berean, gizarte gisa iragazkirik gabe entzun behar ditugun narratibak sortzeko aukera ematen du. Azkenik, haren testigantzak ekarpen baliotsua dira kultura arteko gizarte baten memoria kolektiboa eraikitzeko, gaur egun inspiratzen gaituzten askotariko emakumeen memoria jaso behar baitu, gerorako.

Horiek entzutea funtsezkoa da bizi duten errealitateaz jabetzeko, askotariko gizartearen errealitateari aurrez aurre begiratzeko eta guztion artean erakitzen dugun gizarteaz arduratzeko.



BIZITZA BERRERAIKITZEKO AHOTSAK

Gure esker ona bakoitzari bere eskuzabaltasunagatik, konfiantzagatik, sendotasunagatik eta jakituriagatik. Gure esker ona, haien hitzen bidez errealitateaz jabetzen laguntzen digutelako. Eskerrik asko gizarte inklusiboago bat eraikitzen aktiboki laguntzeagatik.

BFAko Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailaren lankidetzarekin.



AZHAAR

SOMALIA

BAKEA DA GUZTIAREN OINARRIA

Azhaar dut izena, eta 1989ko uztailaren 3an jaio nintzen Somaliako hegoaldeko hiri txiki batean. Jaio nintzen garaian, Somaliako gerra zibila goren unean zegoen. Bertan finkatzeko inguruabarrak egokienak ez ziren arren, gure gurasoak ondo moldatu ziren gu hazteko eta etxeko ateetatik haratago gertatzen zen guztitik babesteko. Bigarren Hezkuntzako eskolan graduatu nintzen hemen.

Gauza asko datozkit burura, baina klima, jaiak... dira gehien nabarmenduko nituzkeenak. Oso faltan dut familia guztiarekin Eidak (Ramadánaren bukaera ospatzeko jaia) ospatzea eta haiekin janari zoragarriak jatea. Bestetik, burura ere badatorkit zenbat aldiz joaten ginen herriko senideak bisitatzera eta ganaduz betetako lur handi hutsak, mendiak eta kostaldea ikustera, kilometro askotan inor ez zegoela.

Hemen igarotako lehenengo hilabeteak nire bizitza osoko bigarren gertaera gogorrena izan ziren, lehenengoa neure familiarik, sorterritik eta betidanik ezagutzen nuen bizitzatik banatzea izan zelako. Izututa nengoen, ez nekielako integratu ahal izango nintzen. Den-dena oso desberdina zen, ohi ez bezalakoa, berriro oinez ibiltzen ikastea bezala.

Oso esker oneko nago CEAR erakundean lagundu zidaten guztiekin. Oinarrizko premiei aurre egiten lagundu zidaten; esate baterako, etxebizitza, hizkuntza, eskola. Era berean, oso esker oneko ere banago Ellacuría Fundazioarekin eta bidean egin nituen adiskideekin.

BIZITZA BERRERAIKITZEKO AHOTSAK

Nire ustez, gainditu behar izan dudan erronka handiena hizkuntza-
ren oztopoa izan da, behar bezala adierazteko gai ez izatea, alegia.
Hori dela eta, ezusteko asko bizi izan nituen. Gaizki-ulertu asko
egon ziren, eta, batzuetan, Espainian bizitzean funtsezkoa zen in-
formazioa galdu nezakeen. Horregatik, lur jota nengoen batzue-
tan.

Bizitzak aurrez aurre jartzen dizkidan zailtasunak ikasteko auke-
ratzat hartzen saiatzen naiz, eta lar ez etsitzen. Era berean, ikarak
geldi ez nazan saiatzen naiz, ezin naizelako gelditu, neure ardura-
pean jende asko dudala kontuan hartuta; neure bost neba-arre-
bak eta aita, esaterako.

Nire eguneroko bizitza edonorena bezalakoa da. Une onak eta une
txarrak daude, baina batzuetan badirudi gainerakoak bezalakoa
ez naizela gogoratzen didaten, eta, halakoetan, seinalatu egiten
nautela sentitzen dut. Esate baterako, garraio publikoan, norbai-
tek nire ondoan eseri nahi ez duenean, edo auzokoak buruko zapia
eraman behar ez nuela esan zidanean, herrialde aske batean nen-
goelako.

Etorkinak hona iristen direnean, haientzat lagungarria da proze-
sua latza dela jakitea eta tresna egokiak edukitzea, bizitza berriari
espiritu onez ekiteko. Izan ere, ondo azaldu beharko litzaieke zer
aukera dauzkaten lanean hasi nahi badute edo ikasi egin nahi ba-
dute. Nirekin hori egin balute, beste erabaki batzuk hartuko nituen;
esate baterako, ikasketak amaituko nituen.

Uste dut babesa gauza guztien oinarria dela. Niretzat ezinbeste-
koa da bakea egotea, jendeak bizitzako beste alderdi batzuei erre-
paratu ahal izateko, horixe bera delako bizitzaren gakoa.



OLENA

UKRANIA

EZ AHAZTU GURE GERRA

Egun on! Olena dut izena. Ukrainakoa naiz, Donbasekoa. Lehenengo eta behin, eskerrak eman nahi nizkioke hain abegitsua den herrialde honi eta, batez ere, niretzat hain hurbila eta maitea den Bilbo zoragarriari.

Zergatik nago hemen? Beste arrazoi bat eduki nahiko nuke hemen egoteko. Oso-oso gustuko dut bidaiatzea eta herrialde, kultura zein jende berria ezagutzea. Nire kasua, ordea, milioika ukrainarrena bezalakoa da, geure etxeak eta eguneroko bizimodua utzi behar izan ditugulako atzean, geure bizia eta geure umeen bizia salbatzeko. Izan ere, lehen guretzat adiskidea eta, era berean, anaia ere bazen herrialde mugakideak ezustean egin digu eraso.

Gerra 2022ko otsailaren 22an hasi omen zen, baina eraso aspaldi hasi zen, 2014an, hain zuzen ere. Une hartan, milioika ukrainarrek derrigorrean alde egin behar izan zuten euren etxetik errusiarrengandik ihesi, Krimean nahiz Donbasen (lehen esan dudan moduan, Donbasekoa naiz).

Orain, gainera azalduko dizuet nolakoa izan zen Bilbora iristeko egin nuen bidaia. Nire lagun-minak eta biok Italiara joatea erabaki genuen, bere amak 20 urte zeramatzalako bertan bizitzen. Italian, berriz, oso zaila zen lana aurkitzea. Bilbora joatea erabaki nuen, nire lagun-minak zazpi urte baino gehiago zeramatzalako bertan. Bere etxera gonbidatu ninduen, eta hona egokitzen lagundu zidan.



Nabarmendu egin nahi nuke zeinen garrantzitsuak diren gizarte-erakundeen aholkularitza eta lagunen aholkuak. Zoragarria da beti norbaiti laguntza eskatu ahal diozula jakitea eta hain egoera latzean bere laguntza jasotzea.

Faktore asko dira zeure barruko indarra aurkitzen, zeure energia areagotzen eta mugiarazten laguntzen dizutenak. Lehenengoa nire familia da, jakina. Nire neba eta ama Ukrainan daude orain, eta, egia esan, haien babes emozionala edo, hobe esanda, psikologikoa izatea beste irtenbiderik ez daukat. Ezin dut amore eman.

Bestetik, agian, gure izaerari erreparatu diozue, mundu guztiak ikusi ahal izan du-eta. Mundu guztiari erakutsi diogu inoiz etsitzen ez dugula eta amaierara arte borrokatzen garela. Hori bizitzeko daukagun gogoaren adierazgarri da erabat.

Neure herrialde maitea faltan daukat oso, nire lurra delako. Nire sustraiak, nire lurraldea, nire herria: hizkuntza, jendea, natura, janaria (oso garrantzitsua da, ukrainarrok oso gustuko dugulako ondo jatea). Bertako natura zoragarria da: itsasoa, mendiak, basoak, lakuak eta ibaiak. Leku paregabeak dira, aberastasun historiko handia dute eta bertako jendea zoragarria da. Izan ere, une latzetan bat egiteko eta historiaren norabidea aldatzeko prest gaude, eta behin baino gehiagotan erakutsi dugu oraintsuko iraganean. Horrez gain, Ukraina oso teknologia aurreratua daukan herrialdea dela esan nahi nuke.

Neure Donbas maiteari buruzko hitz batzuk erantsi nahi nituzke, bertan jaio eta hazi nintzen-eta. Donbas aberastasun handiko lurraldea da, oso herri anitza da eta meategiz betetako lurraldea da.

Nire bi aitonek, nire osabek eta nire lehengusuek meategietan lan egiten zuten. Nire gurasoak, ordea, musikako irakasleak izan ziren musika-ikastegi batean. Neu ere musika-ikastegi batean graduatu nintzen, eta bizitza honetako gauza zoragarria den musika kla-

sikoaren inguruko maitasuna igorri didan familian hazi naiz. Gaur egun, oso gustuko dut operara joatea eta balleta ikustea.

Nire haurtzaroko oroitzapen onenetakoa azalduko dizuet. Urtero, gurasoek neba eta biok eramaten gintuzten gure itsaso ederrera, Azov itsasora, alegia. Ez da oso handia, baina beroa bezain polita da. Urtero-urtero, beti-beti, itsasora joaten ginen familiarekin, derigorrezko bidaia zen.

Ezin ditut unibertsitatean igarotako urteak ahaztu. Bost urte eman nituen Donetsk-ko Unibertsitate Estatalean ikasten. Orain daukadan guztia, orain daukadan oinarri guztia, neure familiari eta neure unibertsitateari zor diet. Horixe gogoratzen dut Donetsk buruz. Han zer gertatzen ari den burura datorkidanean, bihotza gelditzen zait izuaren izuaz.



Mesedez, ez ahaztu gure gerra eta bertan gertatu dena. Hasieran, gure gerra egunkarietako lehenengo orrialdeetan eta albisteetako lehenengo irudietan agertzen zen. Gaur egun, ordea, zoritxarrez,

BIZITZA BERRERAIKITZEKO AHOTSAK

askoz gutxiago hitz egiten da Ukrainako gerrari buruz. Hala ere, egia esan, bertan bizi den jendea edo beste herrialde batzuetara migratu duen jendea gorriak ikusten ari da. Bertan geratu direnak arriskupean bizi dira egunero, euren biziaren, euren senideen eta umeen biziaren beldur. Hori izugarria da benetan.

Migratu dutenei buruz hitz egiten badugu, pentsa ezazue nolako egoera den jendearentzat, bizitza osoa leku berean bizi ondoren derrigorrean den-dena utzi eta lekualdatu egin behar izan direla eta beste leku batzuetan bizibidea bilatu behar izan dutela kontuan hartuta, leku horietako hizkuntza ere ez dakitenean.

Jendea zerua goian eta lurra behean geratu da. Ez daki itzuliko den, eta ez daki nora itzuli egongo den, zure etxea aurritan egon daiteke-eta. Beraz, migratu duen jendeak ere badu etengabeko estresik, ez dakielako hemen geratuko den edo etxera itzuliko den.

Hori dela eta, ulertu eta gogoratu egin behar da gaur egun Ukrainako egoera oso-oso latza eta arriskutsua dela. Ez dakigu noiz amaituko den gerra eta nolakoa izango den prezioa demografiaren eta ekonomiaren ikuspegitik (den-dena aurritan egongo den edo zerbait zutik egongo den eta zenbat jendek biziraungo duen). Horiek guztiak bizirik irauteko galderak dira.

Amaitzeko, esan egin nahi nuke ez dudala inoiz esperientzia txarrik eduki: beti-beti, egin ditudan galderai erantzun diete, jendea niri ulertzen eta laguntzen saiatu da eta bere enpatia sentitu dut beti. Era berean, euskal herritarrak ere badira ikasbide ona, harro daudelako euren nortasunagatik eta euren historia, kultura zein hizkuntza errespetatu eta ezagutu egiten dituztelako.

AMAL

SIRIA

AURRERA EGITEN LAGUN DIEZAGUTELA

Amal dut izena, eta Siriakoa naiz. Urtebete eta hilabete daramat hemen, Espainian.

Siriatik alde egin genuen, bizitza oso latza zelako. Hiru ume ditut, eta autobusez bidaiatu genuen. Oztopo asko zeuden, baita hainbat eta hainbat zailtasun ere.

Gure bizitza oso latza zen Libanon. Libanora iritsi ginenetik, zailtasunak izan ziren nagusi. Nire seme-alabei ikastea debekatu zieten. Beti-beti, haiek ere zergatik ezin ziren eskolara joan galdetzen zidaten, zergatik ezin zuten ikasi ikastetxera zindoazen gainerako haurrek bezala, zergatik ezin zuten egin gainerako umeek egiten zutena.

Galdetzeko asmoz eskolara joaten nintzenean, libanoarrekin ikastea debekatuta geneukala esaten zidaten, nazionalitate libanoarra zeukatenentzako eskolak baino ez zirelako eta guk ez geneukalako Libanon ikasteko eskubiderik.

Bizitza oso latza zen Libanon, eta arazo asko izan genituen. Kanpalekuan bizi ginen, ez geneukan ez argindarrrik ezta edateko urik ere eta ikaragarri sufritzen genuen bertan.

Ez geneukan eskubiderik, eta siriarron aurkako arrazakeria handia zen. Gure bizitzako lau urte Libanon eman ondoren, Nazio Batuen Komisarioa harremanetan jarri zen gurekin, bidaiatzeko prest geunden galdetzeko. Baietz erantzun genien, bidaiatu egin nahi genuela. Espainiatik hara bidaiatzeko aukeratu gintuztela esan

ziguten. Baietz esan genien, joan egin nahi genuela. Lehenengo elkarrizketa bat egin genuen; eta, gero, beste bat. Gure bizimoduak betiko moduan egiteko eskatu ziguten, harik eta etorkizunean haiek edozein berritasun jakitera eman arte. Hilabete geroago, Espainiara joateko egin genituen elkarrizketa horien ostean, jakinarazi egin ziguten gure espedienteak ez zela egokia une hartan bidaiatzeko.

Zortzi urte geroago, Nazio Batuen Komisarioa berriro jarri zen harremanetan gurekin, artean Espainiara bidaiatu nahi genuen galdetzeko, Espainian gure espedienteak onartu zutelako. Baietz esan genien, Libanon bizi diren siriar guztien ametsa delako.

Umeak eta guk geuk elkarrizketak eta azterketa medikoak egin behar izan genituen. Bederatzi hilabeteren ondoren, Espainiarantz irten ginen zuzenean.

Hegazkinez irten eta hona, Espainiara, iritsi ginen. Bertan, ACCEM Elkarteak eman zigun abegia, eta etxebizitza batera eramantzen, ni neu nahiz umeak. Bizitza oso polita zen. Gure egoera eta gure bizi-baldintzak ere oso ondo zeuden.

Izatez, ahula banaiz ere, egoera horretan indartu egin nintzen, seme-alaben etorkizunaren eta, era berean, haien hezkuntzaren alde borrokatzeko.

Adore hori eduki nuen, seme-alabentzako etorkizuna lortzeko, nik neuk ikasi ez dudalako. Hori dela eta, seme-alabek ikastea nahi izan dut betidanik, baita nik neuk lortu ezin izan nuen zerbait erdiestea ere. Gainera, nik neuk lortu ezin izan nuena erdiesten lagundu nahi nieke.

Niretzat oso mingarria zen haiek ikasteko aukerarik ez edukitzea. Era berean, nik neuk ikasi ez izana ere bada mingarria. Horregatik, seme-alabak prestatuago egotea eta hezkuntza-maila handienak lortu ahal izatea nahi nuke. Haietako batek medikua izan

nahi balu, horixe izatea nahi nuke, eta, haietako batek irakaslea izan nahi balu, horixe izatea ere nahi nuke. Haietako batek ingeniaria izan nahi balu, horixe izatea nahi nuke. Esate baterako, Alik futbol-jokalaria izan nahi lukeenez, gurari hori betetzeko gai izatea nahi nuke.

Nire egoerari dagokionez, batzuetan, zertxobait kezkatzen naiz. Nolabaiteko sentsazioa dut, min handia sentitzen dut bihotzean, baina ez dakit zergatik datorkidan.


Badirudi atzerantz noala, gehien nahi dudana aurrera egitea deanean. Aurrera egiten lagundu ahal didan zerbait eduki nahi dut. Nik, esaterako, lau seme-alaba ditut, eta hasieran daude oraindik. Babesa nahi dugu, aurrera egiten lagundu diezaguten, ez dugulako berriro ere atzerantz egin nahi.

Niretzat etxean neure familiarekin nengoeneko oroitzapena da onena. Bertan, den-denok elkartzen ginen: nire seme-alabak, nire neba-arrebak, ni neu, nire aita eta nire ama. Horixe bera da nire bizitzako oroitzapenik ederrena. Egia da oroitzapen hori gaur egun errepikatu ezin dela, baina laster berriro edukiko dugulakoan nago.

Nire neba-arrebak Libanon daude. Norbaitek nahi balu eta, Libanotik hona etorri daitezten, guzti-guztiei laguntzeko moduren bat balego, oso ondo legoke. Edonolako laguntza behar dute hori lortzeko.

ACCEM eta Alboan elkarteek asko lagundu didate. Niretzat, Alboan, oso garrantzitsua da. ACCEMek asko laguntzen digu.

Era berean, auzokide batzuek ere laguntzen didate, Carlosek eta Nagorek egiten duten



BIZITZA BERRERAIKITZEKO AHOTSAK

bezala, Bihotz-bihotzez eskertzen diet laguntza. Oso-oso eroso nago bi pertsona horiekin nagoenean, eta haiekin esertzen naizenean.

Egia esan, datorrenean, Nagorek bere seme-alabak bezala tratatzen ditu nire seme-alabak.



SARAH ARJELIA

GIZARTE HONETATIK
ESPERO DUDAN
GUZTIA ALDAKETA
BAT DA

Sarah dut izena. Aljeriakoa naiz, Wahrango hirikoa, eta ezkondata nago. Wahrango hiriko auzo xumean bizi nintzen.

Urtebetez lan egin nuen haurtzaindegi batean; eta, gero, etxe bat garbitzeko zerbitzuan, goizeko 8:00etatik 16:00etara arte. Arratsaldean, ordea, 18:00etatik 21:00etara arte okindegi bat garbitzen lan egiten nuen. Dirua irabazteko asmoz bizitzan asko eta asko lan egin arren, gure bizitzan ezer aldatzen ez zenez, senarrak eta biok herrialdetik alde egitea eta Europara joatea erabaki genuen. Oso erabaki zaila izan zen, baina fedea, baikortasuna eta erresistentzia edukiz gero, bageneukan lortzerik eta geure ametsak egia bihurtzerik.

Betidanik, nire herrialdea aberatsa izan da, ezin konta ahala baliabide natural dituelako esate baterako, petrolioia, gasa eta burdina. Horrez gain, beste hainbat eta hainbat ondasun ere badaude basamortuan. Herria, ordea, miseria gorrian bizi da. Hori guztia dela eta, Aljeriatik alde egitea erabaki nuen, geure bizitza hobetzeko asmoz.

Legez kanpo irten ginen Aljeriatik, “HERIOTZAREN” itsasontzietan, 2020. urteko otsailaren 8an, 1:00ean (Aljeriako ordutegian), 2:00etan (Europako ordutegian). Abentura hori oso nekeza izan zen. Oso esperientzia latza izan zen, bi irtenbide baino ez zeudelako: iristea ala hiltzea.

Itsasorantz jo genuen. 26 laguneko taldea ginen, eta gehienak umeak ziren. Itsas hondoko abenturak 4 ordu iraun zuen, baina



guretzat 4 urte igaro balira bezala izan zen. Heriotza gertu ikusi genuen, baina ez ginen hil.

Lurrera iritsi ginenean, mendirantz ihes egin genuen. Taldetan banatu ginen. Senarra eta biok talde batekin joan ginen, eta 13 lagun ginen. Iritsi eta minutu batzuetara, helikoptero bat etorri zen gure bila. Zuhaizpean ezkutatu ginen, den-dena zegoen ilun. Handik une batera, helikopteroa joan egin zen...

Hurrengo egunean, eguzkia irten zen, eta oso egun ederra zen. Pozaren pozez nengoan, ez dakit nola adierazi zeinen pozik nengoan. Gero, pentsatzen hasi ginen, Almeriara iristeko planak egin hasi ginen...

Ibili eta ibili ondoren, gose eta egarri ginen, eta, neka-neka eginda geunden arren, ez genuen galdu ez fedea ez itzaropena. Auto gorri zoragarria igaro zen. Emakume batek gidatzen zuen, eta oso atsegina zen. Eskuaz egin nion keinua, gelditu zedin, eta, halaxe izan zen, gelditu egin zen. Senarrak zekien hitz bakarraz galdetu zion: “Almeria”. Piperrik ere ez genekien gaztelaniaz. Emakume hark Almeriara eraman gintuen, eta ingelesez eskertu genion. Gero, senarra eta biok autobus-geltokira joan ginen, bidaia-txartelak erosi genituen eta Madrilera joan ginen; eta, gero, Bilbora.

Bilbora iritsi ginen, eta, 6:00etan, izebari deitu nion. Frantzian bizi da, baina ez zion nire deiari erantzun, nahiz eta Aljeriatik irten baino lehen, Europara iristean lagundu egingo zigula agindu zidan. Hitz hutsalak izan ziren, ordea. Ez zuen agindutakoa bete. Senarrak Frantziara joatea erabaki zuen, eta nik Bilbon geratzea eta bizitzea erabaki nuen. Banatu egin ginen, eta, orduan, arazoak zein sufrimendua hasi ziren, ez nuelako inolako zorterik izan.

Pandemiaren garaian iritsi nintzen. Ikaragarri sufritu nuen. Lehengo hilabeteetan, akituta nengoan. Oso hilabete latzak izan ziren. Bakar-bakarrik nengoan, beste herrialde batean, beste kon-

tinente batean, eta zailena komunikazioa izan zen, gaztelaniaz ez nekielako.

Aljeriako familia bat ezagutu nuen, eta, hilabete horietan, haiekin bizi izan nintzen. Pandemia leku guztietara hedatu zen, bai. Epealdi horretan, etxetik ere ezin ginen irten. Ondoren, betiko bizimodura itzuli ginen, eta kalera irteten hasi ginen.

Beti-beti, Aljeria dut gogoan, nire herrialde maitea, jaio eta hazi nintzen lekua, alegia. Neure familia daukat gogoan, neure ama maitea, oso-oso faltan daukadana. Neba-arrebak ditut gogoan...

Hemen, Espainian, aurkitu nituen gauza zailenen artean, hizkuntza dago. Oraindik, ez dut gaztelania menperatzen, nire maila ertaina da. Oztopo eta arazo askori aurre egin diet, baina apurka-apurka ikasiko dut.

Hemen, Espainiako bizitza berrian, lagundu didatenean artean, Ellacuría Fundazioa nabarmenduko nuke, gaztelaniaz ikasteko eduki nuen lehenengo helbidea, alegia. Fundazioko kide guztiei eman nahi nizkieke eskerrak, asko-asko lagundu didatelako. Oso



jende atsegina ezagutu dut, eta guztiek bertan lan egiten dute. Konfiantza handia daukat haiengan, eta Fundazioa nire bigarren ama dela esango nuke nik.

Oraintxe bertan, lerro hauek idazten ari naiz, eta irribarretsu nago. Ondo nago, Jainkoari eta Fundazioari esker.

Orain, seme polit-polita daukat, eta Mohamed Sanad du izena. Nire aitaren omenez jarri nion izen hori, txikia nintzenean hil zen-eta. Sanad “babesa” da gaztelanieraz, semea nire babes bakarra delako bizitza honetan. Galant-galanta da, eta, beti-beti, irribarrea du ezpainenetan. Hementxe jaio zen, Jesuiten Fundazioaren etxean, alegia. Jainkoak bedeinkatu dezala eta, beti-beti, niretzako babesa izan dadila.

Gizarte honetan aldaketaren bat egitea nahi nuke, emakume musulmanei dagokienez, batez ere. Egun batean, kalean, gazte espainiar batek “terrorista” oihukatu zidan ozen-ozen. “Terrorista” esan zidanean, jende guztia neuri eta berari aldi berean begiratzen hasi zen, ozen-ozen esan zidalako. Nire gorputz osoa zeharkatzen zuen bero itzela sentitu nuen, neure baitan erretzen ari ziren sugarrak baleude bezala. Arrazistei esan nahi nieke geu ere zuok bezalako pertsonak garela.

Etorkizunean, guztioi gizalegezko tratua eman beharko ligukete erlijioa kontuan hartu gabe, fedea zein erlijioa zure eta Jainkoaren arteko gai pertsonalak direlako. Edonola ere, tratua eta gizatasuna gure eguneroko bizitzaren parte dira.

Batez ere, “hijaba” darabilten emakumeak ditut hizpide. Ez litzateke arrazakeriarik egon beharko.

“Hijaba” daraman emakumea naiz, eta, beti-beti, zenbait oztopori aurre egin behar diet; esate baterako, hitzordua daukadanean, lan bila nabilenean edo, besterik gabe, gizartearekin harremanetan jartzen naizenean. Nekez gainditzen ditut.

BIZITZA BERRERAIKITZEKO AHOTSAK

Azkenik, neure lekukotasunaren amaieran, eskerrak emango ditut, baina, batez ere, Ellacuría Fundazioari, inoiz nahikoa ez delako. Benetan eskertzen dut hitz egiteko aukera eman izana.

Maite zaituztegu, semeak eta biok.


AMIRA

SIRIA

**SEGURU
SENTITUKO ZAREN
HERRIALDE BATERA
JOAN AHAL IZATEA**

Wiam dut izena. Siriakoa naiz, eta urtebete eta sei hilabete daromatzat Espainian bizitzen.

Neure etxetik irten nintzenean, egoera oso zaila zen niretzat, semeak bi aste baino ez zituelako eta txiki-txikia zelako. Ezin ginen etxeko ate nagusitik irten. Hormak genituen hautsita, apurtutako hormetan zehar etxe batetik besterantz irten ahal izateko eta kalearen amaieraraino iritsi ahal izateko. Horrela, autoak zeuden lekuraino iristen ginen. Leku batetik bestera eramaten gintuzten. Autoetan mugitzen ginen bitartean, bonbak erortzen zitzaizkigun, eta, askotan, gure begien aurrean hiltzen zen jendea ikusten genuen, adibidez. Ezin izan ditut une horiek ahaztu. Handik egun bat-



zuetara, Libanorantz joatea erabaki genuen.

Libanorantz joatea erabaki genuen, ezin genituelako asetu geure premia funtsezkoenak, ezta geure umearen premiak ere. Orduan, haurtxoa baino ez zen, eta bularra hartzen ari zen. Esnea behar zuen, eta beste gauza asko ere behar zituen. Beraz, neure herrialdetik irten nintzen, eta neure familia utzi nuen zer gertatuko zitzaidan jakin gabe. Haiei zer gertatuko zitzaien ere ez nekien.

Libanora iritsi ginenean, hutsetik hasi ginen. Herrialdetik irten ginenean, ez generaman ezer gurekin. Senarrak denboratxoa behar izan zuen lana aurkitzeko, eta etxebizitza alokatu ahal izan genuen. Zailtasun asko izan genituen, baina aurre egin behar izan genien, bizitza hobea eduki ahal izateko. Geure bidean, zailtasun askori aurre egin genien, eta, haien artean, arrazakeria izan zen nabarierena. Libanoarren ustez, siriarrak haiekin lehiatzen ziren eskubideen eta pribilegioen arloan.

Nire seme-alaben hezkuntzari dagokionez, ezin genuen haientzako eskolarik aurkitu, ikasle libanoarrek zutelako lehentasuna. Bazuten ikasteko aukerarik, baina ez estatuak aitortutako leku batean. Esate baterako, nire semea eskola pribatu batean matrikulatu ahal izan zen, baina eskola publikora lekualdatu zutenean, arratsaldeko ordutegian jarri zuten, ez zuelako goizez ikasteko eskubiderik. Izan ere, ordutegi arruntean, ikasle libanoarrak ziren lehentasuna zeukatenak. Hamaika urteren ostean, Nazio Batuen Komisarioa gurekin jarri zen harremanetan, bidaiatu nahi genuen galdetzeko. Oso egoera latzean bizi ginenez, inolako zalantzarik gabe onartu genuen.

Espainiara heldu ginenetik, ni neu eta neure familia seguru geundela sentitu nuen.

Egia da familiarengandik urrun nagoela. Dena dela, urruntasun-sentsazio hori arinagoa da hemen han baino, hemen banekie-

lako familiarengandik urrun egongo nintzela eta ezin izango nintzela Siriara itzuli.

Bertan, ordea, sentsazio hori zailagoa zen niretzat, bi herrialdeak hurbil zeudelako eta, hala ere, ezin nintzelako itzuli bisitan joateko. Hona etorri nintzen seme-alabentzako etorkizun hobearen bila eta beldurrik gabe ikasteko eta hazteko aukera izan dezaten.

Eusko Jaurlaritzak egin digu harrera Alboan Elkartearen bidez. Izan ere, asko-asko lagundu digute hona iritsi ginenetik, baita gaur egun ere. Pertsona horiek nire familiak egingo zuen bezala lagundu zidatenez, nire bigarren familia dira.

Era berean, eskerrak eman nahi nizkieke gure bizitzatik igaro diren guztiei, baita bertan jarraitzen dutenei ere, era guztietako laguntza zein babesa ematen dizkigutelako eta eskutik heltzen digutelako bidea elkarrekin egiten laguntzeko.

Egia da neure herrialdetik urrun egotea zaila dela, baina geure herrialdetik urrun-urrun gaudenez, erabaki zail-zail asko hartzen ikasi dugu. Gainera, ziur nago erabaki horiek bizimodu hobea eratzen lagunduko digutela.

Horrelako erabakiak hartzeko, indar handia eduki beharra dago. Geure herrialdetik urrun gaudenez eta oso-oso egoera zailak bizi izan ditugunez, geure helburuak lortzeko orduan irmoak eta saiatuak izaten ikasi dugu. Pertsona moduan, ni neu ez nintzen oso indartsua, baina bizitzak indartsuagoa izaten irakatsi dit, baita niretzat hobeak diren erabakiak hartzen ere.

Hemen finkatu gara, eta seguru gaude. Gainera, guretzat oso garrantzitsua da gure seme-alabek etorkizuna ziurtatuta dutela jakitea, eta, era berean, gure etorkizuna ere hobea izango delakoan gaude.

Horri dagokionez, ez daukat inolako zalantzarik edo beldurrik.



Gogoan dut txikia nintzenean etxe berean bizi nintzela neure familiarekin eta, bertan, elkarrekin jaten eta hitz egiten genuela. Bizimodu xumea genuen, baina pozik bizi ginen, eta ez geneukan ez arazorik ez kezkarik. Gure bizitza maitasunez eta txeraz beteta zegoen. Jakina, orain sentsazio hori daukat faltan.

Libanon eta hemen sufritu dudan guztiagatik, eskaera bat egin nahi nioke Estatu espainolari. Bete-betea saiatu beharko litzateke, ahalik eta errefuxiatu gehienei edo gaur egun Libanon jarraitzen duten siriarrei abegia emateko, bertan bizi duten egoera benetan zaila delako eta edonorentzat ametsa delako seguru sentitzeko moduko herrialde batera joan ahal izatea.

Zer esanik ez, besteak beste, neure familiako kideak hona etorri ahal izatea nahiko nuke, etengabe ari naizelako haiengan pentsatzen eta bertan zer gertatu ahal zaien beldur naizelako erabat, bertako egoera benetan latza delako. Nire guraria da, eta lortu nahiko nuke, norbaitek hori lortzen laguntzen badit.

Familia askok euren bizia arriskatzten dute, eta daukaten guztia saltzen dute, herrialdetik irteteko, bertan arazo asko dituztelako, eta itsasoan zehar Europako herrialderen batera joateko, nahiz eta itsasoan arrisku asko egon. Urteen joan-etorrian, jende askok galdu du bizia itsasaldi horretan. Heriotza horiek guztiak saihesteko, hobe izango litzateke estatua bera izatea asilo-eskatzaile gehienei abegia ematea onartzen duena. Horrela, jende askoren heriotzaren ondorioz sortutako arazo guztiak ekidin litezke.



BIZITZA BERRERAIKITZEKO AHOTSAK

Azhaar, Sarah, Olena, Amal eta Amira-ren kontakizunak entzutea gure gaitasunen eta geure bizitzen aurrean jartzen gaituzte. Bere gaitasunek gugan bizi gaituzten gaitasun guztiak garatzera bultzatzen gaituzte. Haien bizitzak gureak aurrez aurre begiratzera garamatzate. Desplazamenduak, hausturak, banantzeak, hasiera berriak, bizitza berreraikitzeak aukera dira. Bejondeigula haien berreraikuntza prozesuak beharrezko babesa lortu izanak gure gizarteek ere berreraiki ahal izateko badira. Gizarte horietan, hospitalitatea antolatze modua da, aniztasunaren aberastasuna ikusarazteko modua, harrera behar dugula diogun pertsonak integratzen dituen jarrera izateko modua.

Elkarri entzutea geure burua berreraikitzeak aukera da, berriro eraikitzeak, ibilbidea berriro hartzen hasteko, sustraiak elikatuz, etorkizunera begira.

Horiek entzutea funtsezkoa da bizi duten errealitateaz jabetzeko, askotariko gizartearen errealitateari aurrez aurre begiratzeko eta guztion artean eraikitzen dugun gizarteaz arduratzeko.